



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

**Ofizial Ehorzle plaza bat betetzeko, onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, epaimahai kalifikatzailearen izendapena eta azterketa data finkatzea.**

Alkate jaunak Alkatezaren 576/2024 Dekretua eman du, otsailaren 12koa. Ebazpen horrek honako hau dio:

*Lehenengoa:* Ofizial ehorzle plaza bat (1) betetzeko, 1 hizkuntza eskakizuna (derrigorrezkoa) hautaketa-prozesuaren onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea:

#### OFIZIAL EHORZLE PLAZA BAT BETETZEKO ONARTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, 1HE DERRIGORREZKOA

NAN	1. abizena	2. abizena	Izena	Autobalorazio-formularioaren behin-behineko puntuazioa
*****01E	CASTAÑO	BERNALES	UNAI	10
*****67W	DUDAGOITIA	URIGUEN	JON	0
*****66M	IRIBARREN	ARESTI	IGOR VICTOR	4,0986
*****89Y	OGUIZA	LEJARCEGUI	AITOR	40
*****20E	PIÑEIRO	PEREZ	GORKA	16,509
*****02F	ZABALO	ITURBE	XABIER	10

#### OFIZIAL EHORZLE PLAZA BAT BETETZEKO EZ ONARTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, 1HE DERRIGORREZKOA

DNI	1. abizena	2. abizena	Izena	Baztertze arrazoia
*****97Z	LOZANO	REVIRIEGO	JUAN MANUEL	TASA EZ ORDAINTZEA

*Bigarrena:* Deialdiko epaimahai kalifikatzaileko kide hauek izendatzea:

— Presidentea:

- Titularra: Iñaki Bañuelos Irusta.  
Ordezkoa: Cristina Alcalde Díaz.

— Idazkaria:

- Titularra: Ainhoa Idirin Merino.  
Ordezkoa: María Andrés Rodríguez.

— Batzorkideak:

- Titularra: Raul González González.  
Ordezkoa: M. Esther Gonzalez Ortega.
- Titularra: Francisco Sánchez Márquez.  
Ordezkoa: Jose Fidel Huerga Pérez.

— IVAP:

- Titularra: Fernando Cherino García.  
Ordezkoa: Juan Carlos Gómez Arrausi.

Epaimahai kalifikatzailearen kideek ezin izango dute esku hartu, eta organo eskudunari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko



40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta izangaiek errefusatu ahal izango dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

*Hirugarrena:* Oposizioko lehen ariketa (atal biak) non eta noiz hasiko den zehaztea: 2024ko maiatzaren 7an, 16:00etan, Basauriko Bidebieta LHIn (Agirre Lehendakari kalea, 97).

*Laugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

*Bostgarrena:* Onarpenak ez du esan nahi prozesua izapidetzen ari den bitartean baztertuak ez izateko eskubidea eskuratu denik, proba guztiak egin diren edo ez kontuan hartu gabe, baldin eta, aurkeztutako datuak edo dokumentazioa egiaztatzearen ondorioz, hautapen-prozesuan onartzeko eta parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez direla ikusten bada. Kasu horretan, epaimahai jarduleak baztertzeko proposamena egingo du, interesdunari entzun ondoren, Alkatetza Lehendakaritzak dagokion ebazpena eman dezan.

*Seigarrena:* Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalbatzako alkate-udalburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen denetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2024ko otsailaren 12an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren